

## BEZEROAREKIKO HARREMANAK

DaltoApp ez da beste aplikazioen modukoa izango, gure produktua Osakidetza osasun-erakundearekin partekatuko baitugu. Horregatik, bi harreman maila izango ditugu nagusiki:

- Alde batetik osasun sistema (osakidetza);  
Medikuek, gure produktua proposatuko diete aproposa ikusten duten pazienteei, eta horretarako, App-aren funtzionamenduari buruz jakin beharko dute. Hala, haien pazienteei azaldu beharko diete non eta nola eskuratu eta edozein zalantza izanez gero, gurekin kontaktuan jartzeko ahalmena izango dute e-mail bidez. Denbora aurrera joan ahala, aurrerakuntzak edo berrikuntzak egonez gero aplikazioan, berria jakinaraziko diegu, aldaketa horiei buruz jakiteko. Edozein mediku behaketarik izatekotan, guztion iritziak eta proposamenak entzuteko prest gaude.

Lehen esan bezala, modu bakarra egongo da gurekin harremanetan jartzeko:

→ Korreoa: daltoapp@gmail.com



- Bestalde aplikazioaren erabiltzaileekin;  
Bezeroekin izango dugun harremana automatizatu izango da, hau da, aplikazioan bertan agertuko da funtzionamenduari buruzko jakin behar duten guztia eta honek dituen ezaugarriak. Izan ere, edozein zalantza izanez gero, gurekin komunikatzeko bestelako atal bat egongo da ere. Bestalde, inkesta eta iruzkin atal bat sortuko dugu, hala, erabiltzaileak beste kontsumitzaileen esperientziak irakurtzeko ahalmena izango dute. Printzipioz, ez legoke egon behar zailtasunik, ahalik eta programazio errazena erabiltzen baitugu. Hala ere, edozein zalantzaren aurrean korreo berdineran mezuak bidali ahal izango dute. Azkenik, aplikazioa baloratzeko izar moduko batzuk aterako zaizkie, (konektatuta dauden bitartean) errazak eta azkarrak direnak denbora askorik ez galtzeko. Bost izar izango dira guztira; bat bakarrik betetzea aplikazioa ez dela erabilgarria esan nahi du; aldiz, bostak betetzea app-a erabilgarria eta haien gustukoa izan dela esan nahiko du.

